

**BILBAO BIZKAIA KUTXA
FUNDAZIOA-EUSKALTZAINDIA
Literatura sariak 2001**

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero antolatzen dituzte elkarrekin eleberri, antzerki, olerki eta saiakera-sariak. 2001. urteari dagozkion irabazleen izenak jakinarazi dira eta sariak eman abenduaren 14an egin den prentsaurrekoan. Sari-ematea Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, egin da.

Ondoko hauek dira aurtengo deialdiaren irabazleak, sariak eta epaimahaikideak:

Txomin Agirre eleberri-saria: Patxi Ezkiaga Lasa, *Bigarren haurra*.

Saria: 1.300.000 pezeta.

Epaimahaikideak: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

Sari honetara 4 lan aurkeztu dira.

Toribio Alzaga antzerki-saria: Alaitz Olaizola Borda, *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin*.

Saria: 800.000 pezeta.

Epaimahaikideak: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

Sari honetara 4 lan aurkeztu dira.

Felipe Arrese Beitia olerki-saria: Sonia Gonzalez Fernandez, *Sagarroiak*.

Saria: 800.000 pezeta.

Epaimahaikideak: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi Imaz.

Sari honetara 8 lan aurkeztu dira.

Mikel Zarate saio-saria: Jurgi Kintana Goirienea, *Vizcaytik Bizkaira?*

R.M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919).

Saria: 1.000.000 pezeta.

Epaimahaikideak: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

Sari honetara 6 lan aurkeztu dira.

PATXI EZKIAGA LASA
TXOMIN AGIRRE SARIA. ELEBERRIA

BIGARREN HAURRA

Hezurretako minbiziaren erasoan, oroitzapenei lotuta ematen ditu Lurdes Etxegoienek bere bizitzako azken egunak. Ustekabean, FOP-eko polizia-ohi bat izango du bidaikide, Euskal Herriaren azken hogeita bost urteetako zenbait gertakariri buruzko ikuspegi eta irizpideak kontrajartzera bultzatuko duena. Maitale izan dituen bi lagunekin –argazkilaria bata, politikaria bestea– bizi izandakoak beteko du emakumearen bakardadea, eta Irlandara ihes egingo dako alaba bakarraren barkamenaren itxaropenak.

Patxi Ezkiaga

Legorretan jaioa, Oxford eta Cambridgeko unibertsitateetan egin zituen bere literatura ikasketak. Geroztik, Deustuko Unibertsitatean burutu zituen Historia arlokoak. Irakasle, Bilbon eta Donostian jardun du batik bat lanean. Literaturaren arloan, berriz, 1984 geroztik nabarmendu da bere lana.

Argitalpenak:

Ipuinak: *Antxon Eraso 1* (Mensajero, 1982), *Antxon Eraso 2* (Mensajero, 1982), *Karnaba*. (Mensajero, 1982), *Ate debekatua* (Erein, 1988) *Borobilinoff eta Txakurkan* (Erein, 1988), *Kinkilariaren Ametsa*, Erein, Donostia (1988), *Kaito Inozoa* (Erein, 1988), *Bataioto Apaiza* (Erein, 1989) *Han urrutian* (Bruño, 1990), *Deabruaren Eztarria* (Sendoa, 1990) *Izeba Maripi* (Elkar, 1996).

Poemarioak: *Beldur naiz* (Caja de Ahorros Vizcaina, 1985), *Aiodi Herriko Kantak* (Gipuzkoako Kutxa, 1986), *Armageddon* (Eusko Jaurlaritza, 1986), *Gernika* (Erein, 1987), *Fadura* (Gipuzkoako Kutxa, 1987), *Ispiluaeren isladaketak* (Elkar, 1988), *Keiko eta beste udazkenak* (Elkar, 1988) –azken bi hauek 1989ko Kritikaren Saria–, *Terrala* (Sendoa, 1990), *Baladak* (Sendoa, 1990), *Komediaren Jainkoa* (BBK, 1993), *Haize Hurbila/Viento cercano* (EHU, 1984), *Zauriaren Salmoak/Salmos de la Herida* (Birmingham, 1997. 1998ko Kritikaren Saria), *Udazkenerako Hamar Kanta* (Kutxa, 1999), *Ara-sango Antifonak* (Cuadernos de Anciles, 1999).

Eleberriak: *Charles Moulay* (Sendoa, 1990), *Bi zisneen hegada* (Sendoa, 1992), *Zure haragi bereko* (Erein, 1996).

Sariak: Irun Hiria (3 aldiz), Txomin Agirre Saria (Eusko Jaurlaritza), Li-zardi Saria (Eusko Jaurlaritza, 2 bider), Felipe Arrese Beitia Saria (bi bider), Julene Azpeitia Saria, Agustin Zubikarai Saria.

ALAITZ OLAIZOLA BORDA
TORIBIO ALTZAGA SARIA. ANTZERKIA

ZEREO ZERA ZERTZEN DELAKO ZEREO ZERAREKIN

Eugenio metroan bizi da azken urteotan. Bertatik igarotzen diren guztientzako baditu hitzak, zeresanak eta jakin ere badakizki hainbat trikimailu handik igarotzen diren guztiei etekinen bat ateratzeko.

Gabon inguruko egun batean ordea, eta bera konturatu ere egin gabe, pixkanaka-pixkanaka sekulako saltsan sartzen joango da, egun horretan metrotik igaroko diren pertsonen behar baino gehiago hurbiltzeagatik.

Bi helburu nagusi hartu dira kontuan:

- Atsotitzen erabilera berreskuratzea. Ahalegin honen lekuko jatorra izango da Eugenio.
- Argitu gabe geratzen diren zenbait egoera planteatzen dira lan honetan eta intentziaz geratu dira argitu gabe, jakinminarekin geratzeaz gain, bakoitzaren irudimena zertxobait gehiago erabiltzera bultzatuko duelakotan. Horra hor lanaren izenburuaren arrazoiak.

Alaitz Olaizola

1975. urteko urtarrilaren 8an jaio zen Azpeitian. Gaur egun bertan bizi da. Magisteritza, Haur Hezkuntzan alegia, amaitzekotan dabil.

Antzerkira ikastolan hurbildu zen lehenengo aldiz gaztetxoa zenean, antzezle gisa. Gero gaztaroan, 2 urtez *Antxieta* antzerki taldean aritu zen, antzezle gisa ere.

23 urte zituenean, *Lakrikun* antzerki taldean hasi zen antzezle, eta antzerki idazle moduan ere.

Lanak:

- *Ez dira berdinak, antzekoak baizik* (1998, 2001)
- *Zereo zera zertzen delako zereo zerarekin* (1999, 2001)
- *Garalderen Requiem-a* (2001)

Gaur egun, Azpeitiko Ikasberri Ikastolako gurasoak osatzen duten *Lakrikun* antzerki talde amateurreko kidea da Alaitz Olaizola.

SONIA GONZALEZ FERNANDEZ
FELIPE ARRESE BEITIA SARIA. OLERKIA

SAGARROIAK

Gai desberdinak jorratzen dira: hiria, munduaren anabasa, amodioa, adis-kidetasuna, poesia... izan ere, zati bitan dago banatuta: «Harlauzak zulatuz» eta «Pekhautu nintzen kamatze-jakaz». Azken izenburu hau Miranderen «*Kama-goli*» poemako bertso-lerroa da.

Poema gehienak heriotzaren lanbroak estaltzen ditu:

Benetako heriotza: hutsunea, bakardadea, etsipena... heriotza maiuskulaz.

Sexua: frantsesek ez dute alferrik erabiltzen *Le petite morte* esapidea.

Sentimenduen heriotza: hauxe da baikorrena, momenturik goxoena berpizkundearena baita.

Zorrotzak eta indartsuak batzuk, arrotzak beste zenbait, malenkoniatsuak gehienak.

Sonia Gonzalez

Barakaldon jaioa. Euskaldun berria da. Euskal Filologia ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean. Itzulpengintza arloan lan egin ondoren, Deustuko Unibertsitateko bertako Euskal Irakaslegoan aritu zen bi urtetan, euskara irakasle. Gaur egun, LAB sindikatuan lan egiten du, Komunikazio arloan.

Idazteko gogoia betidanik sentitu du Sonia Gonzalezek, baina hasi, iaz hasi zen idazten. *Sagarroiak* izeneko lana bere lehenbiziko produkzioa da, poema bat edo beste gorabehera.

Argitalpenak:

Entseiukarrean izeneko aldizkarian bertso librearen inguruan egindako lana publikatu zuen, Imanol Irigoienek zenbait poematan oinarrituta.

Laster, *Entseiukarrean* aldizkariaren hurrengo alean, hain zuzen ere, ondoko lana argitaratuko du: «Bariatatea eta estandarra. Batuaren eragina ume bizkaitar biren hizkeran»

JURGI KINTANA GOIRIENA
MIKEL ZARATE SARIA. SAIAKERA

VIZCAYTIK BIZKAIRA? R.M. AZKUE EUSKALTZAINDIA SORTU AITZIN (1888-1919)

Saiakera honetan Resurreccion Maria Azkue (1864-1951) apezaren perfil intelektuala aztertu da. Azkue 1888an jaio zen kultur bizitzara, Bilboko euskara katedra lortzean. Katedratik abiatuz harreman sare zabala eratu eta kultur proiektu sendoa bideratu zuen. Bere ahalegina 1919an garabete zen Euskaltzaindia sortu eta bertako buru izendatu zutenean. Saiakerak bada 1888tik 1919rako epealdi hori aztertu du, Azkue garaiko euskal kultura munduan kokatuz. Iturri nagusi gisa Euskaltziandian gordetako Azkueren gutuneria pertsonala erabili da, bost mila eskutitz baino gehiagok osatua.

Jurgi Kintana Goiriena

Hogeita sei urteko bilbotarra. 1994an historia karrera hasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, 1999an lizentziatuz. 1998an Sancho el Sabio Fundazioaren unibertsitate mailako I. ikerketa saria jaso zuen. *Jakitez* graduondoko titulua 1999an. Egun MECaren beka bati esker Azkueren gaineko doktorego tesia egiten dihardu. EHUKo doktorego programaren baitan ikerketa aurreratuen titulua eskuratu du 2001ean Azkueri buruz egindako tesinarekin. Udako Euskal Unibertsitateko Historia Saileko kidea da, baita Eusko Ikaskuntzako eta Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutuko ere. UEUren ikastaro batzuen antolatzaile moduan zein hizlari gisa aritu izan da. Beste erakunde batzuetan ere eman ditu hitzaldiak eta ikastaroak, tartean Eusko Jaurlaritzaren *Garatu* programaren baitan.

Argitalpenak:

Judu herriaren ibilbide luzea liburua Gaiak argitaletxean Xabier Kintanarekin batera (1994); Zubiaren DBH 1. eta 2. mailetarako *Historia-Geografia* testuliburuaren euskal atalak eta moldapen orokorra (2000); eta zenbait historia artikulua *Uztaro*, *Bidebarrieta*, *Sancho el Sabio*, *Eusko News & Media* eta beste aldizkari espezializatu batzuetan. Liburu atal batzuk ere egin ditu Euskaltzaindiarentzat eta Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutuaren argitalpenetan.



LITERATURA SARIAK • 2002

Txomin Agirre Saria
Eleberria
Toribio Alzaga Saria
Antzerkia
Felipe Arrese Beitia Saria
Olerkia
Mikel Zarate Saria
Saioa

**BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA-EUSKALTZAINDIA:
LITERATURA-SARIAK: 2001 ETA 2002.KO OINARRIAK**

**PREMIOS LITERARIOS: FUNDACIÓN BILBAO BIZKAIA
KUTXA-REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA /
EUSKALTZAINDIA**

Premios 2001 y bases 2002

*Bilbo, egoitza, 2002-VI-21, ostirala, eguerdiko 12etan
Bilbao, sede, 21 de junio 2002, 12 h. mediodía*

*Ricardo Badiola Uriarte,
argitalpen eragilea / Encargado
del Servicio de Publicaciones.*

Mintzatzaileak / Ponentes:

- I. Jean Haritschelhar, euskaltzainburua/ Presidente: «Agurra, ongi etorria.....» / «Saludo y bienvenida»;
- II. Jose Ramón Bilbao, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren ordezkaria/ Delegado de Fundación BBK:
«2001.urteko sarien liburu-argitaratzea eta 2002.urteko sarien Oinarriak.....»; / *Premios del 2001 y bases del 2002;*
- III. Juan Mari Lekuona, Euskaltzaindiaren Literatura batzordeburua / Presidente de la Comisión de Literatura de la R.A.L.V. / Euskaltzaindia.
«BBK-Euskaltzaindia sarien garrantziaz.....» / «Importancia de los premios literarios de la BBK-Euskaltzaindia»;
- IV. Saridunak / Premiad@s:
 - IV.1. Txomin Agirre Saria: *Eleberria*; Irabazlea: Patxi Ezkiaga Lasa: irabazitako sari-liburukiaren izenburu: *Bigarren haurra*.
Patxi, Legorretan jaioa zaitugu. Hainbat alditan irabazi dituzu Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia sariok. La Salle Ikastetxean diharduzu irakaskuntzan.

Premio Novela: Patxi Ezkiaga: *Bigarren haurra* / Premiado con el premio de Novela y varias veces galardonado con los certámenes literarios de la BBK-Euskaltzaindia.

* * *

IV.2. Toribio Altzaga Saria: *Antzerkia*: Irabazlea: Alaitz Olaizola Borda. Liburukiaren izenburua: *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin*. Alaitz Azpeitian jaioa dugu. Hau sariau lehen aldiz irabazi du. *Premio Teatro*: Alaitz Olaizola: *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin*;

Galardonada por primera vez con el premio literario de Teatro de la BBK-Euskaltzaindia.

* * *

IV.3. Felipe Arrese Beitia Saria: *Olerkia*: Sonia Gonzalez, ezizenez «Sumendi». Saria irabazitako liburukiaren izenburua: *Sagarroiak*.

Barakaldon jaioa dugu Sonia. Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia olerki-saria lehen aldiz irabazi du.

Premio Poesía: Sonia González «Sumendi»: *Sagarroiak*

Ganadora por primera vez del premio literario de la *Poesía* de la BBK-Euskaltzaindia.

* * *

IV.4. Mikel Zarate Saria: *Saioa*: Jurgi Kintana Goiriena. Saria irabazitako liburukiaren izenburua: *Vizcaytik Bizkaira? R. M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*.

Bilbon jaioa zaitugu Jurgi. Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia *Mikel Zarate Saioa* lehen aldiz irabazi duzu.

Premio Ensayo: Jurgi Kintana: *Vizcaytik Bizkaira / Preludio de la Fundación de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia*; Galardonado por primera con el premio literario de Ensayo de la BBK-Euskaltzaindia.

V. Jean Haritschelhar, euskaltzainburua: «Azken berbak...» / «Agradecimiento y despedida...».

BBK-EUSKALTZAINDIA LITERATURA SARIAK LORTU ZITUZTEN LANAK ARGITARATU DIRA

(Prensa-oharra)

2002-IV-21

BBK-Euskaltzaindia Literatura sariak abenduan banatu ziren, eta Patxi Ezkiaga, Alaitz Olaizola, Sonia Gonzalez eta Jurgi Kintana suertatu ziren irabazle kategorian desberdinetan. Lan hauen argitalpenak atzo aurkeztu ziren Bilbon dagoen Euskaltzaindiaren egoitzan. Han izan ziren egileak eta Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideak. Bestalde, literatura sari hauetarako hurrengo deialdia egin dagoela jadanik iragarri zuten euskaltzainek eta BBK fundazioko kideek.

BBK Fundazioaren babesari esker, Literatura saridunen obrak eskuragarri daude dagoeneko liburu-dendetan, edozein irakurle euskaldunentzat. Hauen artean, *Bigarren haurra* lanak irabazi du iaz Txomin Agirre Eleberri Saria.

Legorretan jaio eta gaur egun Bilbon eta Donostian irakasle den Patxi Ezkiaga da eleberri honen egilea. Ezkiagak ipuin, poesia eta eleberri ugari ditu argitaratuta, baina *Bigarren haurra* mugako eleberria da bere aburuz. Eta mugaren osagarri nagusia, besteak beste, «ziurtasunik ezak sorturiko segurtasun beharra» da. Nobela honetan, hezurretako minbiziaren erasoan, oroitzapenei lotuta ematen ditu pertsonaia nagusiak bere bizitzako azken egunak. «Pertsonaiek presio egiten dute, nork bere tokia izan dezan mindurazko korapilo horretan», aipatu zuen atzo egileak. Nobela honetan «errealitatearen miaketa estetiko egiten» saiatu dela gaineratu zuen Ezkiagak.

* * *

Alaitz Olaizolak Toribio Altzaga Antzerki Saria lortu du, eta, hori dela eta, bere *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin* lana argitaratu dute. Azpeitiko idazle gazteak metroan bizi den pertsonaia baten inguruan sortu du bere antzezlan. Antzerki munduan mugitzen da egilea, eta atzoko ekitaldia errebindikazio batzuk egiteko baliatu zuen. «Azken urteetan nabaritu dugu beharakada izan dela antzerki produktzioan, eta nik deialdi bat egin nahi dut botereak bultzada eman diezaion antzerkiari». Olaizolak gaineratu zuen oso po-

zik dagoela bere lana argitaratuta ikustearekin, baina antzezlan baten patu naturala taularatzea dela, eta horixe nahi lukeela berak.

* * *

Poesia arloan, Sonia Gonzalezen *Sagarroiak* izeneko lana argitaratu da, Felipe Arrese Beitia Saria irabazi duelako. Barakaldon jaioa den egile honek LAB sindikatuan egiten du lan gaur egun. Atzoko aurkezpenean, poesia idazteko arrazoiari buruzko gogoeta bat egin zuen: «Poesiak ez du dirurik ematen, poesiak ez gaitu salbatzen eta ez gaitu salbatuko, baina, hala ere, premiazkoa dugu. Izan ere, poesiak gizonon eta emaztekion barrukoena, funtsezkoena, intrinsekoena azaleratzen du. Poesiak emazteki eta gizon egiten gaitu» esan zuen.

* * *

Bestetik, Mikel Zarate Saiakera saria irabazi zuen Jurgi Kintana bere lanari buruz mintzatu zen. *Vizcaytik Bizkaira? R.M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)* izeneko lan horretan, Azkue apaizaren alderdi intelektuala aztertzen du egile bilbotarrak. Kintanak azaldu zuenez, hasieran bere asmoa XIX eta XX. mendeetako euskal literatura aztertzea zen. «Baina bidean Azkue topatu nuen. Eta Azkue euskal kulturaren historian erraldoia da», argitu zuen.

**BILBO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:
LITERATURA SARIAK:
2002KO OINARRIEN ETA 2001EKO LIBURU SARITUEN
AURKEZPENA**

2002-VI-21

*Joserra Bilbao,
BBK-ren Elebitasun Zerbitzuko burua.*

Eguerdi on jaun-andreok.

Eskerrik asko Bilbao Bizkaia Kutxaren izenean, Euskaltzaindiari, literatura sariketa honeek kudeatzeagaitik, igazkoan irabazi dozuen idazlei, zeuon lanak aurkeztera etortzeagaitik, eta baita be, honen barri emoten etorri zarien kazetarioi.

Pozarren aurkeztuko doguz, Patxi Ezkiaga, Alaitz Olaizola, Sonia González eta Jurgi Kintana-ren liburuak, igazko sariketetan merezimentu osoz, ira-



BBK eta Euskaltzaindiko kideak 2001ko lau sarituekin.

bazle izan ziralako. Kontuan izan behar dogu, Euskaltzainburuak oraintxe esan deuskun moduan, idazleak, idatzitakoa nonoiz liburu bihurtzeko asmoz egiten dauala, eta ez sariak irabazteko.

Orain, Euskaltzaindiari eta BBKri, liburuoi urtenbide duina emotea jago-ku eta irakurle interesdunaren esku jartzea. Ahaleginduko gara hau era itxurosoan egiten.

Aurtengo sarien ganean, esan, diru-kopuruak «biribildu» egin doguzala eurotara bihurtzerakoan, eta egokitze hau goranzkoa izan dala. Hagaitik, aurtengo sariak igazkoak baino handiagoak dira. Albiste ona, duda barik. Honek dira baldintzak:

- Eleberria, *Txomin Agirre saria*: 125 orri gitxienez eta 8.000 €.
- Antzerkia, *Toribio Alzaga saria*: gura dan neurria eta 5.000 €.
- Olerkia, *Felipe Arrese saria*: 750 bertso-lerro gitxienez eta 5.000 €.
- Saioa, *Mikel Zarate saria*: 125 orri gitxienez eta 6.000 €.

Hori nora ez dala, lau sarioi jagokezan baldintza orokor batzuk aipatuko deusueguz:

- Lanak aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da, eta beharrak, Euskaltzaindiaren egoitzara honetara bialdu behar dira. Epaia, abenduaren 31 baino lehenago emongo da.
- Egilearen adina, bizilekua eta nazionalitatea edozein izan ahal da, eta idazlanak originalak eta argiratu bakoak izan behar dira.
- Epaimahaiak, Euskaltzaindiak izendatuko ditu eta sarietako dirutzak, zatiezinak dira.

Hori dana eta beste zehaztasun batzuk be, hortxe dituzue, oinarrietan.

Gaurtik aurrera geratzen dan gauza bakarra, idazleak animatze hastea da.

Beste barik, abenduan sariak banatzeko barrero alkarregaz izango garalakoan, agur eta eskerririk asko danori.